

Hodei Munduate Etxeberria

B maila • 2 saria

Hodei Munduate Etxeberria naiz ni, Zaldibikoa, herri txiki honetan bada bertso zaletasuna eta nik handik ikasi dut. 2003ko abenduaren 24an jaio nintzen eta ordundik hiru zaletasun garatu ditut, kirola, musika eta bertsolaritza.



Doinua: Begi umelak

HITZA EZ DA ALFERRIKAKO!

1.

Burua barran botata
taberna erdian neskata.
Alkohola edate horrek
gorputzen in zidan akatsa:
Ezezagun batek heldu,
besoa bizkarretik pasa,
etxera lagundu zidan,
ezin nuen ta neure kaxa

2.

Gau hartatik mutilari
zenbakia nion emana
hala elkarri kontatuz
gure bizin pasatzen zana:
nun genbiltzan eta zertan,
nola zihoakigun lana...
Honela sortzen joan zen
gure arteko harremana.

3. Laster maitemindu ginen;
nahiz eta iruditu bitxi,
elkarrekin bizitzea
nahikoa azkar zen iritsi.
Denbora gutxian zenbat
eztabaida luze ta krisi,
Ez bainintzen berarekin,
berarentzako nintzen bizi.

4.

Ohitu nintzen aditzera
"hola jantzi behar al zara?"
Berak eskatutakoan
joatera gogoz gelara,
saihesten saiatzen nintzen
eragiten zidan ikara.
"Hobe da isilik egon
hitza alferrikako bada."

5.

Baina mila tontakeri
bilakatu ziren arazo:
zer jantzi, norkin ibili,
egin behar niola kaso...
Hitz itsusiz ta irainez
maiz egin ohi zidan eraso.
Zoritzarrez ukabila
etzon beti poltxikun jaso.

6.

Amaitu nuen betiko
jada ez sasi ta ez laino,
horrenbeste sufritzetik
Adorez hau idazteraino.
Ireki begiak, ahaztu
bai gezur eta bai engaino.
Ez dau ta beste modurik
mundua aldatzea baino!